

Normalizazio Txostena

1. DATU OROKORRAK

Txosten zk.	2006/000
Data	2006-06-06

Aztergaia	escorrentía; isurtze/isurketa/isurpen
Eskaeragilea	Terminologia Batzordea
Xedea	Erlazionaturiko termino-sail bati irtenbide bateratua ematea
Proiekta	Ingurumen Hiztegi Entziklopedikoa

1. HELBURUA

Txosten honek bi xede nagusi ditu:

- batetik, aztertzea ea *run off* = *escorrentía* = *ruissellement* esateko *isurketa* ez den beste modurik ote dagoen
- bestetik, aztertzea ea zuzena eta egokia den bi-hiru kontzeptu izendatzeko *isurtze/isurketa/isurpen* terminoak erabiltzea, eta, behar izanez gero, beste irtenbide bat edo batzuk proposatzea

2. INGURUMEN HIZTEGIKO INFORMAZIOA

1

eu: isurketa; isurtze
es: escorrentía
fr: ruissellement
en: runoff, run-off

hidrosfera

Def.: Euri-ura edo elur urtua lur gainetik ibiltzea, ur-ibilgura heldu edo lur azpira iragazi aurretik

2

eu: emisio; isurpen; isurtze
es: emisión
fr: émission
en: emission

hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura

Def.: Ingurunera substanziak botatzea edo energia (beroa, zarata, dardarak, erradiazioak, erradioaktibitatea, etab.) askatzea

Oharra: Emisio terminoak berez horrelako adiera zabala badu ere, eskuarki, aireratzen diren gasetarako erabiltzen da; horrelakoetan, gainera, aireratze terminoa ere erabili ohi da

3

eu: isurpen; botatze; isurketa; isurtze

es: vertido

fr: décharge; déversement; rejet

en: discharge; dump; dumping

hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura

Def.: Hondakin likido edo solidoa ingurunera botatzea edo biltzeko edota tratatzeko instalazio batera bideratzea.

Oharra: Hondakin solidoez, bereziki tamaina handikoez, mintzatzean, eskuarki botatze terminoa erabiltzen da

3. INFORMAZIO TERMINOLOGIKOA

I. ESCORRENTÍA

eu: isurketa; isurtze

es: escorrentía

fr: ruissellement

en: runoff, run-off

hidrosfera

Def.: Euri-ura edo elur urtua jur gainetik ibiltzea, ur-ibilgura heldu edo lur azpira iragazi aurretik

Euskarazko obra lexicografiko edo terminologikoetatik bilduak

[2/2] Hiztegi Terminologikoa <i>Sailkapena:</i> Geologia, Astronomia <i>eu</i> isurketa <i>es</i> escorrentía <i>fr</i> ruissellement <i>en</i> runoff	IT	Euskalterm
[2/1] Hiztegi Terminologikoa <i>Sailkapena:</i> Geologia, Astronomia <i>Definizioa:</i> Prezipitazioen ondorioz, errekan bildu aurretik lur-azalean bide	IT	Euskalterm

nabaririk gabe doan ura. eu isurketa-ur es agua de escorrentía fr eaux de ruissellement en trickling water		
Def.: Water that travels over the soil surface to the nearest surface stream; runoff of a drainage basin that has not passed beneath the surface since precipitation. (Source: BJGEO) Sailkapena: HYDROSPHERE (freshwater, marine water, waters)	IT	GEMET
Български: Повърхностен отток Čeština: odtok povrchový Dansk: overfladeafstrømning Deutsch: Oberflächenabfluß Ελληνικά: επιφανειακή απορροή English: surface runoff English (US): surface runoff Español: salida de superficie Eesti keel: pindäravool, pindmine ärvavool Euskara: azaleko isurketa Suomi: pintavalunta Français: ruissellement de surface Magyar: felszíni lefolyás Italiano: deflusso superficiale Nederlands: afwatering van de oppervlakte Norsk: overflateavrenning Polski: spływ powierzchniowy Português: runoff superficial Русский: поверхностный сток воды Slovenčina: povrchový odtok Slovenščina: površinski odtok Svenska: dagvatten		
eu: isurketa (termino lehenetsia); isurtze en: runoff; run-off es: escorrentía fr: ruissellement	IT	GEO
Def.: Oro har, prezipitazioaren ondoren, lurrundu edo iragazi baino lehenago lurrazaletik abiatzen den ura		
eu: isurketa-ur en: runoff es: aguas de escorrentía fr: écoulement	IT	GEO
escorrentía /GEOL jariatze: la erosión producida por la escorrentía,	IT	Zehazki

jariatzeak eraginiko higadura		
jariatu, jaria, jariatzen. zaio <i>ad.</i> (1571) 1. Tokiren batetik isurkari bat (adibidez ura iturbegitik, odola zauritik, malkoak begietatik) irten. Ik. erion. <i>Ur bizikzo ibaiak jariatuko zaizkio sabeletik. Soineko zahar hura erantzi zioten, jariatu zitzaison odolarekin gorputz larrutuari itsatsita zeukalako, soinekoarekin batean haragi paska handiak kentzen zizkiotela.</i> Ahotik odola jariatzen bazaio: ahori odola badario. 2. du <i>ad.</i> (1967; jariotu 1847). Jak. <i>Guruin batek jariatzen duen gaia.</i>	IT BB38	
jariatze, jariatu. ad.-aren aditz izena. // iz. (1571). Odol jariatza: odol jarioa. Odol jariatzez eri zen emaztea.	IT BB38	
2 jario. <i>iz.</i> (1745). 1. Jariatza, zerbaiti darion zera. <i>Barrika horrek jarioa du beheko aldean. Jario gutxiko iturria. Ur jarioa. Bekokiko izerdi jarioa xukatu. Arantza zulotik odol jarioa sortu zen. // Txorimalo barre ikaragarri horien ahotik isurtzen den jarioa. Gure etxeetatik Ameriketara jario etengabea sortzen zen aldi hartan. Barne bizitzaren jario iheskorra. Hitzen jario bukaezina. Zure begiei darien maitasun jario hori. // Isuria, jaidura. Bekaturako gutizia, grina edo jario makurra. 2. (Hitz elkartzearen bigarren osagai izanik, adizlagun gisa). Zerraldo utzi zuen kordegabeturik, odol jario. Basoa beroaren beroz lurrin jario. * (Hitz elkartzearen bigarren osagai izanik, izenondo gisa). Cantinflas galtza-jarioa.</i>	IT BB38	
jariatze: 1. flujo, emanación. "Odol iarietea, dysenterie, flux de sang" SP. "Hitz jariete handia" (SP), grand flux de paroles. <i>Odol jariete</i> (id.), perte de sang" Dv. "Écoulement" T-L. *	IT BA35	
jario: I (Vb.). ^Manar, fluir (sentidos porp. y fig.) (...)	IT BA35	
dabilur (G-azp) ^"Dabillur, agua corriente (FSeg)" A. "Dabill-ura, agua corriente, corriente de agua" Gketx Loiola * <i>Iturrietako ura garbi izan oida, ez ordea oxinetako ta dabillura.</i> Bähr EEs 1922, 111.	IT BA35	

Beste hizkuntzetako obra lexikografiko edo terminologikoetatik bilduak

Def.: Portion of rainfall, melted snow or irrigation water that flows across the ground's surface and is eventually returned to streams. Run-off can pick up pollutants from air or land and carry them to receiving waters.	IT	▪ EEA
Czech: přívalová voda		
Danish: afstrømning		
Dutch: afstromend water		
English: runoff		

<p>Estonian: ärvool</p> <p>Finnish: valuma</p> <p>French: eaux de ruissellement</p> <p>German: oberirdischer Abfluss</p> <p>Hungarian: {WAT} lefolyás, vízhozam</p> <p>Icelandic: frárennsli í ár</p> <p>Italian: dilavamento</p> <p>Latvian: lietus, sniega vai irigācijas ūdeņi</p> <p>Lithuanian: nuotékis</p> <p>Norwegian: avrenning</p> <p>Polish: odpływ</p> <p>Portuguese: escorrência</p> <p>Romanian: Scurgere Slovak: prívalová voda</p> <p>Slovenian: odtok</p> <p>Spanish: escorrentía</p> <p>Swedish: avrinning</p>		
<p><Ciències de la Terra></p> <p><i>ca</i> escoriment, m</p> <p><i>es</i> escorrentía</p> <p><i>fr</i> écoulement de surface</p> <p><i>fr</i> ruissellement</p> <p><i>en</i> overland flow</p> <p><i>en</i> surface runoff</p> <p>Definicions <i>ca</i>: Escolament superficial de l'aigua meteòrica fins a formar un corrent d'aigua.</p>	IT	AM16
<p><Gestió ambiental></p> <p><i>ca</i> escorrentia, f</p> <p><i>es</i> escorrentía</p> <p><i>en</i> runoff</p> <p>Definicions <i>ca</i>: Lloc per on s'escorre l'aigua.</p>	IT	AM16
<p><Gestió ambiental></p> <p><i>ca</i> escolament, m</p> <p><i>es</i> escorrentía</p>	IT	AM16

<p><i>en</i> surface runoff</p> <p>Definicions</p> <p>ca: Desplaçament de l'aigua de pluja que flueix per damunt d'una superfície.</p> <p>Notes</p> <p>ca: Correspon a la fracció de la precipitació d'aigua o neu que va a parar directament als rius.</p>		
<p><Ciències de la Terra></p> <p><i>ca</i> escolament, m <i>es</i> escorrentía <i>fr</i> écoulement <i>en</i> flow</p> <p>Definicions</p> <p>ca: Moviment de les aigües continentals per influència de la gravetat.</p>	IT	AM16
<p>fr eaux de ruissellement n. f. pl. (terme normalisé par un organisme international)</p> <p>en surface water ; quasi-synonyme(s): stormwater</p> <p>Définition : Eaux recueillies sur la surface des bâtiments, des structures ou du sol.</p>	IT	GDT
<p>fr eaux de ruissellement n. f. pl.</p> <p>en run-off water ; synonyme: runoff ; variante(s) graphique(s): run off water</p> <p>Définition : Partie des précipitations atmosphériques qui s'écoule librement à la surface du sol avant de s'infiltrer dans celui-ci ou de parvenir au réseau hydrographique et qui peut entraîner des polluants et des déchets.</p>	IT	GDT
<p>fr eaux de ruissellement</p> <p>en runoff</p> <p>Définition : Les eaux du ruissellement comprennent les eaux de pluie et les eaux de lavage de la voirie.</p>	IT	GDT
<p>fr eaux de ruissellement</p> <p>en trickling water</p> <p>Définition : Eaux coulant à la surface du sol sans y pénétrer.</p>	IT	GDT
<p>fr eaux de ruissellement</p> <p>en surface run-off</p>	IT	GDT

<p>fr ruissellement n; quasi-synonyme(s): écoulement de surface n. m., écoulement superficiel n. m.</p> <p>en surface run off ; synonyme(s): rainwash ; quasi-synonyme(s): overland runoff, overland flow, sheet flow, surface flow</p> <p>Définition :</p> <p>Écoulement de l'eau de pluie ou de fusion des neiges à la surface du sol qui provoque l'érosion dès que la vitesse est suffisante pour entraîner des particules solides.</p>	IT	GDT
---	-----------	-----

AUKERAK

TR	escorrentía: <i>azaleko isurketa</i>	KG	iz.	IT	GMET
Arrazoibidea	<p>Kontsultatutako iturrietan agertzen denaren arabera, termino ingeles hauek guztiak sinonimotzat jo daitezke: <i>surface runoff</i> (GMET, GDT, Cercaterm), <i>overland flow</i> (GDT, Cercaterm), <i>overland runoff</i> (GDT), <i>sheet flow</i> (GDT), <i>surface flow</i> (GDT).</p> <p>Definizioetan agertzen denaren arabera, argi dago fenomenoa lurrazalaren gainetik gertatzen dela; beraz, fenomenoa izendatzeko euskaraz <i>azaleko isurketa</i> erabil liteke. Eta, eman ere, hori eman zen GMETen:</p> <p>eu: azaleko isurketa en: surface runoff es: salida de superficie fr: ruissellement de surface</p> <p>Def: Water that travels over the soil surface to the nearest surface stream; runoff of a drainage basin that has not passed beneath the surface since precipitation. (Source: BJGEO)</p>				
Arazoak	<p>'azaleko isurketa' jarrita, ez dugu saihesten arazoak, 'escorrentía' fenomenoaz gain 'vertido superficial' ere bai baitago:</p> <p>Un grupo de trabajo consideró 17 posibles sedes para el vertido superficial, subsuperficial (a poca profundidad) y subterráneo (disposición profunda). ...</p> <p>Vertido superficial en línea de. costa. • Vertido superficial en escollera, con difusores. • Vertido mediante colector. submarino con dilución previa ...</p> <p>Asegurar el aislamiento en la infiltración del agua de lluvia y evitar el vertido superficial. Integrar la instalación en el medio. ...</p> <p>frente a la posibilidad de contaminación derivada de cualquier vertido superficial) y de la. intensidad, extensión y ubicación de los focos contaminantes. ...</p>				

TR	escorrentía: <i>jariatze</i>	KG	iz.	IT	Zehazki
TR	agua de escorrentía: <i>jariatze-urak</i>	KG	iz.	IT	
Arrazoibidea	Lurraren zientzietan, <i>jariatze</i> ez da erabiltzen beste kontzeptu bat izendatzeko, beraz, espezializazio-eremu horretan ez litzateke interferentziarik sortuko.				
Arazoak	<ul style="list-style-type: none"> ▪ <i>Jariatza</i>, berez, toki jakin batetik isurtzea da (iturbegitik, sudurretik, zauritik...). Beraz, ez da erabat zehatza esatea lur gainetik eta ibilguetatik kanpo dabilen eta hedatzen den ura <i>jariatu</i> egiten dela. ▪ Lurraren zientzietan interferentziarik eragiten ez badu ere, <i>jariatu</i> aditza eta <i>jariatze</i> aditz-izena gehienbat biologian erabili izan dira orain arte (<i>segregar, secreción</i>). Beraz, interferentziak sortuko lirateke bi espezializazio-eremuen artean, hots, biziaren eta lurraren zientzien artean. Hori, berez, ez da arrazoi nahikoa <i>jariatu/jariatze</i> lurraren zientzietarako ere hartu ahal ez izateko. Arazoa da biologian <i>jariatu</i> aditzaren familiako beste hainbat termino espezializatu ere erabiltzen dela (<i>jario, jariakin, jariatzaile</i>) eta horien guztien erabilera oso hedatua eta normalizatuta dagoela; ondorioz, <i>jariatu/jariatze</i> eta antzekoak biziaren zientziarekin lotzen ditu erabiltzaileak. 				

TR	agua de escorrentía: <i>dabilur</i>	KG	iz.	IT	BA35
Arrazoibidea	Abantaila nabarmen bat du: hitz hori ez da erabiltzen, eta, beraz, guztiz espezializatutako terminoa izango litzateke, gainerakoekin interferentziarik eragingo ez lukeena.				
Arazoak	Semantikoki, <i>dabilur</i> ez da erabat zehatza, <i>escorrentía</i> -ren hiperonimoa baita. Izan ere, <i>dabilur</i> -en bi kontzeptu biltzen dira: ur-ibilgutik kanpo dabilena (<i>escorrentía</i>) + ur-ibilguetan zehar dabilena.				

PROPOSAMENA

TR	escorrentía: (<i>lur gaineko</i>) <i>jariatze</i>	KG	iz.	IT	
TR	aguas de escorrentía: (<i>lur gaineko</i>) <i>jariatze-</i> <i>urak</i>	KG	iz.	IT	
Arrazoibidea	Orain arte ikusi dugunaren arabera, badirudi ezinezkoa dela erabat gogobetegarria den irtenbidea aurkitzea. Aurkeztutako aukeren artean, uste dugu <i>jariatze</i> dela egokiena; <i>isurketa</i> terminoak polisemia-arazoak ditu, eta <i>dabilur</i> terminotik abiatuta, berriz, ez dugu ekintza izendatzeko aukerarik ikusten. Hala ere, esan dugun bezala, termino hori ez da erabat zehatza, ez du jasotzen ura lurraren gainetik ibiltzearen ideia. Arazo hori konpontze aldera, iruditzen zaigu egokia dela aurretik <i>lur gaineko</i> izenlaguna eranstea. Testuinguruaren arabera, noski, ez dugu baztertzen elipsia egin eta <i>jariatze</i> edo <i>jariatze-urak</i> erabiltzeko aukera.				

II. ISURTZE, ISURKETA, ISURPEN

i. [OROKORRA: SUBSTANTZIAK + ENERGIA]

eu: emisio; isurpen; isurtze
 es: emisión
 fr: émission
 en: emission

Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura

Def.: Ingurunera substantziak botatzea edo energia (beroa, zarata, dardarak, erradiazioak, erradioaktibitatea, etab.) askatzea

Oharra: *Emisio* terminoak berez horrelako adiera zabala badu ere, eskuarki, aireratzen diren gasetarako erabiltzen da; horrelakoetan, gainera, *aireratze* terminoa ere erabili ohi da

Euskarazko obra lexicografiko edo terminologikoetatik bilduak

[62/29] Hiztegi Terminologikoa <i>Sailkapena:</i> Garraioa, posta, telekomunikazioak Garraioak Zirkulazioa eu gasak botatze es emisión de gases	IT	Euskalterm
[62/30] Hiztegi Terminologikoa <i>Sailkapena:</i> Garraioa, posta, telekomunikazioak Garraioak Zirkulazioa eu asaldu elektromagnetikoak botatze es emisión de perturbaciones electromagnéticas	IT	Euskalterm
[62/31] Hiztegi Terminologikoa <i>Sailkapena:</i> Garraioa, posta, telekomunikazioak Garraioak Zirkulazioa eu zarata egite es emisión de ruidos	IT	Euskalterm
[62/49] Hiztegi Terminologikoa <i>Sailkapena:</i> Eraikuntza eta hirigintza Hirigintza, orokorra <i>Definizioa:</i> Atmosferara botatzen diren ke, gas, partikula eta, oro har, atmosfera-kutsagarri guztiak. eu isuri atmosferiko es emisión atmosférica fr émission atmosphérique	IT	Euskalterm
[62/62] Konsulta-fitxak <i>Sailkapena:</i> Eraikuntza eta hirigintza Hirigintza, orokorra eu gas-isuri es emisión gaseosa	IT	Euskalterm

Beste hizkuntzetako obra lexicografiko edo terminologikoetatik bilduak

Def.: A discharge of particulate gaseous, or soluble waste material/pollution into the air from a polluting source. (Source: UNUN)	IT	GEMET
--	----	-------

<p>Български: Емисия</p> <p>Čeština: emise</p> <p>Dansk: udledning</p> <p>Deutsch: Emission</p> <p>Ελληνικά: εκπομπή</p> <p>English: emission</p> <p>English (US): emission</p> <p>Español: emisión</p> <p>Eesti keel: emissioon, heide</p> <p>Euskara: emisio; isurtze; isurpen</p> <p>Suomi: päästö</p> <p>Français: émission</p> <p>Magyar: kibocsátás/emisszió</p> <p>Italiano: emissioni</p> <p>Nederlands: emissies</p> <p>Norsk: utsipp</p> <p>Polski: emisja</p> <p>Português: emissões</p> <p>Русский: выброс</p> <p>Slovenčina: emisie</p> <p>Slovenščina: emisija</p> <p>Svenska: emission; utsläpp</p>		
<p>The direct or indirect discharge of exhaust gas into the atmosphere. (Source: LEE)</p> <p>Български: Емисии отпадъчен газ</p> <p>Čeština: emise plyňů odpadních</p> <p>Dansk: emission af røggas</p> <p>Deutsch: Abgasemission</p> <p>Ελληνικά: εκπομπή απαερίων (καυσαερίων)</p> <p>English: waste gas emission</p> <p>English (US): waste gas emission</p> <p>Eesti keel: heitgaasiheide, heitgaasiemissioon</p> <p>Español: emisión de gas de residuos</p> <p>Euskara: hondar-gasen emisio; hondar-gasak aireratze; hondar-gasen isurpen</p> <p>Suomi: jätekaasupäästö</p> <p>Français: émission d'effluents gazeux</p> <p>Magyar: hulladékgáz kibocsátás</p> <p>Italiano: emissioni di inquinanti gassosi</p> <p>Nederlands: uitstoot van (uitlaat)gassen</p> <p>Norsk: avgassutslipp</p> <p>Polski: emisja gazów odpadowych</p> <p>Português: emissões gasosas</p> <p>Русский: выброс отходящего газа</p> <p>Slovenčina: emisie odpadového plynu</p> <p>Slovenščina: emisija odpadnih plinov</p> <p>Svenska: avgasutsläpp</p>		GEMET

ii. [HONDAKIN LIKIDOAK + SOLIDOAK]

eu: isurpen; botatze; isurketa; isurtze
 es: vertido
 fr: décharge; déversement; rejet
 en: discharge; dump; dumping

Ingurumena: hondakinak, kutsatzaleak, kutsadura

Def.: Hondakin likido edo solidoa ingurunera botatzea edo biltzeko edota tratatzeko instalazio batera bideratzea.

Oharra: Hondakin solidoez, bereziki tamaina handikoez, mintzatzean, eskuarki *botatze* terminoa erabiltzen da

Euskarazko obra lexikografiko edo terminologikoetatik bilduak

<i>Sailkapena:</i> Biologia Ekologia <i>Definizioa:</i> Hondakinak norabait botaz edo nonbait pilatuz ezabatzea. <i>eu</i> hondakinen isurpen <i>es</i> vertido de residuos descarga de desechos <i>fr</i> déversement de déchets émission de déchets <i>en</i> discharge of wastes	IT	Euskalterm
<i>Sailkapena:</i> Biologia Ekologia <i>eu</i> hondakinak itsasora isurtze <i>es</i> eliminación de residuos en el mar vertido de residuos al mar <i>fr</i> évacuation des déchets dans la mer <i>en</i> disposal of waste at sea	IT	Euskalterm
<i>Sailkapena:</i> Biologia Ekologia <i>eu</i> isurpen kontrolatugabe <i>es</i> vertido incontrolado <i>fr</i> décharge inconsidérée décharge non contrôlée <i>en</i> uncontrolled dumping indiscriminate dumping	IT	Euskalterm
<i>Sailkapena:</i> Biologia Ekologia <i>eu</i> zabortegi kontrolatugabe isurtegi clandestino <i>es</i> basurero incontrolado vertedero clandestino <i>fr</i> décharge non contrôlée <i>en</i> uncontrolled dump	IT	Euskalterm

Beste hizkuntzetako obra lexikografiko edo terminologikoetatik bilduak

Def.: The discarding of waste in any manner, often without regard to environmental control. (Source: RHW / ERG) Български: Изхвърляне на отпадъци Čeština: skládkování Dansk: dumping Deutsch: Abfallablagerung Ελληνικά: απόρριψη/εκφόρτωση/απόθεση/εκκένωση/καταβύθιση English: dumping English (US): dumping	IT	GEMET
---	-----------	-------

<p>Español: descarga</p> <p>Eesti keel: prügi ulakaadamine, jäätmete kontrollimatu mahapanek</p> <p>Euskara: isurpen; botatze; isurketa; isurtze</p> <p>Suomi: jätteiden kaato; polkumyynti</p> <p>Français: décharge non réglementaire</p> <p>Magyar: lerakás Italiano: scarico (attività)</p> <p>Nederlands: storten</p> <p>Norsk: avfallsdumping</p> <p>Polski: pozbywanie się odpadów</p> <p>Português: descargas não controladas</p> <p>Русский: сброс мусора</p> <p>Slovenčina: skládkovanie</p> <p>Slovenština: odlaganje (odpadkov) - črna odlagališča, smetišča</p> <p>Svenska: dumpning</p>		
<p>Def.: The disposal of solid wastes without environmental controls. (Source: LANDYa)</p> <p>Български: Изхвърляне на отпадъци</p> <p>Čeština: skládkování odpadů</p> <p>Dansk: dumpning af affald</p> <p>Deutsch: Lagerung von Abfall</p> <p>Ελληνικά: απόρριψη αποβλήτων</p> <p>English: waste dumping</p> <p>English (US): waste dumping</p> <p>Eesti keel: prügi ulakaadamine, jäätmete (prügi) kontrollimatu mahapanek</p> <p>Español: vertido de residuos</p> <p>Euskara: hondakinak botatze; hondakin-isurpen</p> <p>Suomi: jätteen kaato mereen</p> <p>Français: mise en décharge des déchets</p> <p>Magyar: hulladéklerakás</p> <p>Italiano: scarico dei rifiuti</p> <p>Nederlands: storten van afval</p> <p>Norsk: avfallsdumping</p> <p>Polski: wyrzucanie odpadów</p> <p>Português: descargas descontroladas de resíduos</p> <p>Русский: сваливание отходов</p> <p>Slovenčina: skládkovanie odpadov</p> <p>Slovenština: odlaganje odpadkov</p> <p>Svenska: tippning</p>	IT	GEMET

ONDORIOAK

TR	isurtze; emisio (substanzia + energia)	KG	iz.	IT	ING
TR	isurketa; isurtze; botatze (hondakin likidoak + solidoak)	KG	iz.	IT	ING

<p>Arrazoibidea</p> <p><i>Isurtze</i> aditz-izena isuri aditzetik eratorria da; generikoa da, eta, beraz, kasu guztiarako erabil daiteke.</p> <p>Horrez gain, badira beste termino batzuk kasuan kasu soilik (edo batez ere) erabil daitezkeenak:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Substantziei oro har eta energiari dagokion kasuan, egokia iruditzen zaigu <i>isurtze</i> aditz-izena erabiltzea. Horrekin batera, nazioarteko den <i>emisio</i> terminoa ere erabil daiteke, aireratzen diren gasen kasuan batez ere. Kasu horretan, gainera, <i>aireratze</i> terminoa erabiltzeko aukera ere badago. Ingrumen Hiztegian, termino bakoitzaren erabilera-eremua oharrean dago zehaztuta. Hiztegian jasota zegoen <i>isurpen</i> terminoa, beriz, baztertu egin dugu, sinonimiari desegoki iritzita, nahiz eta, hiztegi orokorrean, <i>isurpen</i> eta <i>isurketa</i> sinonimoak izan 2. Hondakin likido eta solidoen kasuan ere, egokia iruditzen zaigu <i>isurtze</i> aditz-izena erabiltzea. Horrekin batera, <i>isurketa</i> terminoa ere egokia da, hondakinen alorreko termino espezializatua delako neurri handi batean. Tamaina handiko hondakin solidoen kasuan, gainera, <i>botatze</i> ere erabil daiteke. Ingrumen Hiztegian, terminoen erabilera-eremua oharrean dago zehaztuta.

4. ITURRIAK

Txostena egitean aipa daitezkeen obra nagusien kodeak zehazten dira ondorengo taulan (Euskaltermeko kodeak dira). Taulan agertzen den obra bat aipatzean, kode normalizatu hori erabili beharko da. Era berean, taulan ez dagoen obraren bat aipatu behar izanez gero, txostenean erabili den kodea eta kode hori deskodetuko duen azalpena gehituko dira taula honetan.

Kodea	Azalpena
3100	EUROPEAN COMMISSION TRANSLATION SERVICE: <i>Eurodicautom</i> datu-bankua: http://europa.eu.int/eurodicautom/Controller
AI91	OFFICE DE LA LANGUE FRANÇAISE (Québec). <i>Le grand dictionnaire terminologique</i> : http://www.granddictionnaire.com
AM16	TERMCAT. CENTRE DE TERMINOLOGIA: <i>Cercaterrm. Servei de consultes terminològiques en línia</i> : http://www.termcat.net/cercaterrm/
AM21	EUSKALTZAININDIA. <i>Hiztegi Batua</i> .
BA35	EUSKALTZAININDIA. <i>Orotariko Euskal Hiztegia</i> . Bilbo: Mensajero; Desclee; Euskaltzaindia, 1995.
BA42	<i>Gran enciclopedia Larousse</i> . Bartzelona: Planeta, 1988-1992. 30 libk.
BA64	<i>Grand Larousse Universel</i> . Paris: Larousse, 1987-1989. 15 libk.
BB05	ELHUYAR. <i>Hiztegi entziklopedikoa</i> . Usurbil: Elhuyar, 1993.
BB19	BOSTAK BAT. <i>Diccionario Euskara-Castellano, Castellano-Euskara 3000 = Hiru Mila Hiztegia. Euskara-Gaztelania, Gaztelania-Euskara</i> . Bilbo: Bostak bat, 1996.
BB38	SARASOLA, I. <i>Euskal Hiztegia</i> . Donostia: Kutxa, Gizarte- eta Kultur Fundazioa, 1996.
BB97	ELHUYAR. <i>Elhuyar Hiztegia. Euskara-gaztelania. Castellano-vasco</i> . Usurbil: Elhuyar, 2000-2.
BC13	REAL ACADEMIA ESPAÑOLA. <i>Diccionario de la Lengua Española</i> . Madril: Real Academia Española, 2001.
CD14	CANADIAN GOVERNMENT SERVICES. TERMIUM. <i>Le dictionnaire électronique bilingüe du Gouvernement du Canada = TERMIUM</i> . Kanada: Government Services Canada, 1999.
EEA	European Environmental Agency. <i>EEA multilingual environmental glossary</i> : http://glossary.eea.europa.eu/EEAGlossary/

Euskalterm	<i>Euskalterm</i> datu-bankua: http://www1.euskadi.net/euskalterm/indice_e.htm
FN35	Zabaleta, J. [zuz.]. <i>Lur Hiztegi Entziklopedikoa</i> . Donostia: Lur, 1991.
GZ49	AKORDAGOIKOETXEA, J. [zuz.]; SARASOLA, I. [c-e koord.]; ARRIGAIN, I. [e-g koord.]. <i>Hiztegi handia. Castellano-Euskara. Euskara-Gaztelania</i> . Bartzelona: Spes editorial, 2002.
GDT	OFFICE QUÉBÉCOIS DE LA LANGUE FRANÇAISE (OQLF). <i>Le Grand Dictionnaire Terminologique</i> . Kanada: http://www.granddictionnaire.com/btml/fra/r_motclef/index1024_1.asp
GEMET	<i>GEMET - General Multilingual Environmental Thesaurus</i> . European Environment Information and Observation Network. http://www.eionet.europa.eu/GEMET
GEO	ELHUYAR. <i>Geologia Hiztegi Entziklopedikoa</i> . Usurbil: Elhuyar, 1999.
ING	<i>Ingurugiro Hiztegi Entziklopedikoa</i> . Lurralte Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila. Eusko Jaurlaritza. Gasteiz, 1998
Zehazki	SARASOLA, I. Zehazki. <i>Gaztelania-Euskara Hiztegia / Diccionario Castellano-Euskera</i> . Alberdania. 200

5. ERABILITAKO LABURDURAK

DF	definizioa
EE	erabilera
EK	erabilera/kodea
IR	irudia
IT	iturria
KG	kategoria gramatikala
OH	oharrak
SN	sinonimoa
TR	terminoa
TS	testuingurua/k
ca	katalana
de	alemana
en	ingelesa
es	gaztelania
fr	frantsesa